



2023KO URRIAREN 11KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urriaren hamaikan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Maialen Amundarain Irizar zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Ordenantza fiskaletan, orokorrean, abuztutik abuztura urte arteko kontsumo prezioen indizearen (KPI) pareko igoera aplikatzea planteatzean da, hau da, %2,7koa. Eta zaborraren eta uraren kasuan, bietan %8ko igoera.

Bestalde, honako aldaketak proposatu ditu:

1- Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko zerga:

- Urteko gehikuntzari dagokionean, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu dituen koefiziente maximoak aplikatzea, eta aldaketa hauek jasotzeko ordenantza fiskalen testua egokitzea.
- Karga-tasa %10ekoa izatea.

2- Eraikuntza, instalazio eta Obrei buruzko Zerga:

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza instalazioengatik, %90eko hoberia aplikatzea.

3- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga:

Ziklomotoreak eta 125 z.k.ra arteko motozikletak 10€-tara igotzea.

4- Hileta zerbitzuen tasak:

- Lurperatzea 350 €
- Panteoiean hilobiratzea 350 €
- Nitxo pribatuetan hilobiratzea 250 €
- Nitxo publikoetan hilobiratzea 370 €
- Intzineratutako gorpuak lurrian hilobiratzea 170 €
- Intzineratutako gorpuak nitxo publikoetan hilobiratzea 110 €
- Intzineratutako gorpuak nitxo pribatuetan hilobiratzea 90 €
- Nitxoeren tapetako plakan hainbat lan:
 - o Inskripzio grabatua: 127,05 €
 - o Oroipen esaldia, hizki bakoitza 1,69 €
 - o Grabatuak:
 - A Erref. Motakoak 76,59 €
 - E Erref. Motakoak 88,94 €
 - C Erref. Motakoak 119,19 €
 - G Erref. Motakoak 119,19 €
 - Lauburu Erref. Motakoak 76,59 €
 - o Loreontziak:
 - 3472 Erref. 74,66 €
 - 518 Erref. 79,01 €
 - o Argazkia koloretan 8 x 10 108,90 €
 - o Plakaren ekarri-eramana 33,88 €

Gaiaz eztabaidatu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenaren eta bere espedientean jasotzen den dokumentazioaren araberrako ordenantza fiskalen aldaketa eta bere testuaren egokitzapena, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan baliorduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

II.- UDAL ZERGAK ETA TASAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN ARAUTEGIA.-

Udal zergak eta tasak ordaintzeko laguntzen arautegia aldatzea planteatzen da. Aldaketak honako hauek dira:

- Bi laguntza lerro berri gehitzea: Batetik Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren bazkidetzak eta jarduerak, eta bestetik kultura eta denbora libreko jarduerak.
- Zerga eta tasak ordaintzeko laguntzen aplikaziorako erabiltzen den hileroko soldata mailaren taulan, tarte bakoitzari % 10eko igoera aplikatzea.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergen laguntzei dagokionean, famili ugari-
en hobarian gehienezko diru-sarreraren mugak % 10 igotzea.



**LAZKAOKO
UDALA**

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio positiboki baloratzen dutela kiroldegiko bazkidetza eta jardueretan eta kultura jardueretan tasen dirulaguntzak ezartzea eta hauek, ahalik eta epe laburrenean kudeatzeko eskatu du.

Hau honela, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedienteetan jasotzen den dokumentazioaren araberako udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko arautegiaren aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lan balioduneko denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpena behin betikoa bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

III.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

